SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2018

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

kluster@soziolinguistika.eus
www.soziolinguistika.eus
slklusterra
@slklusterra

(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Soziolinguistika Klusterra euskara biziberritzeko ikergunea da. Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eginez eta bertako zein nazioarteko soziolinguistika ezagutza kudeatuz egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Elkarlan gune bat da; unibertsitate esparruko ikerlariak, administrazio publikoa, enpresa pribatuak eta euskararen aldeko gizarte mugimenduak harremanean jarduten duten egitasmoa.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria, metodo zientifikoak baliatuz eskuratutakoa, ekoizteko proiektuak beharrezkoak dira eraldaketa soziolinguistikoak ulertu eta eragiteko.

Soziolinguistika Klusterra euskara biziberritzeko prozesuaren zerbitzura bideratuta dago. Bere bazkide diren erakunde eta norbanakoei zein euskararen hiztun komunitateari zor dio bere izaera. Sortutako eta kudeatutako ezagutza guztia gizarteari modu libre batean eskaintzeko bokazioa du, beraz.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
URTEKO TXOSTENA 2018

Osaketa grafikoa: ZIRRIMARRA ESTUDIO GRAFIKOA
Martin Ugalde Kultur Parkea • 20140 ANDOAIN

BAZKIDEAK

OHOREZKO BAZKIDEA:

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artez Euskara Zerbitzua
- BAI Euskarari Elkartea
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebete elkartea
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkartea
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartea
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
- Hernaniko Udala
- Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
- HUHEZI Koop. E. Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Soziologia II saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Zumaiako Udala

artez euskara zerbitzua
Bilbao Udala Ayuntamiento
bai euskarari Ziurtagiriaren Elkartea
Bermeoko Udala Euskera Saila
Donostia San Sebastián
ebete
elhuyar
emun Euskara eta Berrikuntza Sozialak
Erandioko Udala
Errenteriako Udala
ikastolenelkartea
euskaltzaleen topagunea
aek
Eusko Ikaskuntza Asmoz ta Jakitez
Urtxintxa Kalitatezko Herritarrak
upna Universidad Pública de Navarra Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
Hernaniko Udala
Mondragon Unibertsitatea
kutxa Fundazioa
Laboral Kutxa
NETLE Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea
Mank sakana
UeMA
Zumaiako Udala

NORBANAKO BAZKIDEAK:
72 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2018
AURKIBIDEA

1 **Lehendakariaren agurra ..... 6 or.**

2 **Nortasuna, erabaki-guneak eta bulego teknikoa ..... 7 or.**

3 **PROIEKTUAK ..... 9 or.**

01. Aldahitz ..... 10 or.
02. Berba-lapiko ..... 11 or.
03. Berbekin ..... 11 or.
04. Ahozkotasuna: prestakuntza saioak eta tailerrak ..... 12 or.
05. "Ahozko komunikazioa irakastea. *Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*" Gidaliburua ..... 13 or.
06. Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia) ..... 14 or.
07. Euskararen Adierazle Sistema (EAS) ..... 15 or.
08. Herrietako euskararen erabileraren azterketa ..... 16 or.
09. Arrue Proiektua ..... 17 or.
10. D ereduko kirola ..... 18 or.
11. *Euskaraldia*ren ikerketa ..... 19 or.
12. Jendaurrean Erabili ..... 20 or.
13. EHUko Uda Ikastaroa: "Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten" ..... 21 or.
14. Gipuzkoa Berdinago ..... 22 or.
15. Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa ..... 23 or.
16. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak ..... 24 or.
17. Behaketa Bidezko Hizkuntzen Erabileraren Neurketak EHUn ..... 25 or.
18. Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa ..... 26 or.
19. Soraluzeko bilakaera soziolinguistikoa eta prospektiba ..... 27 or.
20. XI. HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak ..... 28 or.
21. X. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia ..... 29 or.
22. BAT Soziolinguistika Aldizkaria ..... 30 or.
23. Soziolinguistika Albistaria ..... 31 or.
24. Eusle Hezkuntzan ..... 32 or.
25. Hizkuntza-ohiturak Osakidetzan ..... 33 or.

4 **Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak ..... 35 or.**

1

2018ari buruz
Lehendakariaren agurra

Maddi Etxebarria.
Lehendakaria

2018ko batzar orokorrean, Soziolinguistika Klusterreko bazkide guztion bilgunean, gure balioen inguruan jardun genuen, horiek baitira gure izanaren eta lan-jardunaren norabidea. Beraz, gure balioak ekarri nahi ditut sarrera honetara, Klusterraren jardunaren eta proiektuen ardatz diren heinean.

Lehenengoa, zientifikotasuna: metodo zientifikoan oinarrituta lan egiten dugu, eta, egindako lan horrek Euskal Herritik kanpo ere izan du oihartzuna (hainbat kongresutan parte hartu dugu: Frisia, Galizia, Katalunia); baina, baita Euskal Herrian bertan ere (Topaldia, Euskaltzaindia, EHUren Udako ikastaroetan, etab.). Horretaz gain, hizkuntzen kale erabileraren gaineko azterketa sakona egiten ari gara Natxo Sorolla ikerlariarekin batera.

Bigarren balioa elkarlana da, osagarritasun eta lankidetza gisa ulertuta. Klusterraren beraren esentzian dugu elkarlana: zuzendaritzan, hainbat erakundetako kideok parte hartzen dugu; proiektuak gauzatzeko orduan, bulegoko kideak, unibertsitatekoak eta bazkideok elkarrekin jarduten dugu sarri (Jendaurrean erabili, Aldahitz, Tokian tokiko Aktibazioa, etab.), beste erakundeek antolatutako jardueretan ere parte hartu dugu (Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, NPLD, Topagunea, etab.).

Azkenik, gizarte-konpromisoa, euskara biziberritzean aurrera egiteko eta emaitzak gizartean gardentasunez zabaltzeko konpromiso gisa. Horren erakusgarri dira urtero legez, Hausnartu Saria eta Bat aldizkaria, esaterako. Bestelako argitalpen berezituak ere egiten ditugu, eta, aurton *Ahozko komunikazio Irakastea-Norabide bat Ahozko Hizkuntzaren Argitan* liburua aurkeztu dugu.

Balio horien erakusgarri dira 2018an landu ditugun jarduera guztiak. Euskararen inguruko gizarte ekimenen artean Euskaraldia nabarmendu den urtean, nolabaiteko lotura duten bi proiektu aipatuko nituzke: batetik, EUSLE metodologia aipatuko nuke, hizkuntza-praktiken inguruko rol zehatz batzuk banatuz hizkuntza-ohiturak aldatzeko esperientzien bidez garatu dena 2011tik hona; eta, bestetik, Euskaraldiaren emaitzen inguruan egiten hasi garen ikerketa, 2019an borobilduko duguna.

Hori guztia aurrera eraman dugu bulego teknikoan egunero gogotsu lan egiten duten teknikari eta ikerlariei esker. Urte hauetan sendotzen joan da lantaldea, bai kopuruz bai esperientziaz. Baina barruan pauso handiak eman badira ere, oraindik kanpotik eusten gaituena ez da nahikoa sendoa; izan ere, euskarak behar duen soziolinguistikarako ikerguneak beharko luke egitura sendo, finko eta egonkorra izan, kanpo-faktoreek baldintzatuko ez duten babesarekin.

Eta, tartean, horrela jarraituko dugu, hasitako proiektuetan sakontzen, euskarak behar dituen ikerketa-lerro berriak aztertzen, lantaldea sendotzen, elkarlanean lan egiten, eta hori guztia komunikatzen, 2018an egin dugun bezalaxe.

2

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

NORTASUNA, ERABAKI-GUNEAK ETA BULEGO TEKNIKOA

NORTASUNA

Soziolinguistika Klusterra irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta Berrikuntzako Bitarteko Erakunde izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBS) eragile gisa.

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren erronka, interes eta beharrei erantzuteko. Hori lortzeko lanean diharduten bazkide, erakunde publiko, gizarte eragile, zientzia eragile eta bestelako eragileen soziolinguistika alorreko baliabide eta gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako elkarlanean ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuak garatzen ditu, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika arloko I+G+Bko erreferentziazko agente izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz.

Balioak

- Zientifikotasuna: Metodo zientifikoan oinarrituta autonomiaz jarduten du.
- Elkarlana: Osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- Gizarte-konpromisoa: Euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia. Eragile ezberdinekin elkarlanean egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez.

ERABAKI-GUNEAK

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu.

Zuzendaritza Batzordea

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. Gaur egun honako hauek osatzen dute:

- Lehendakaria: Maddi Etxebarria (Elhuyar Aholkularitza)
- Lehendakariordea: Mertxe Mugika (Euskaraz Koop. Elk. – AEK)
- Diruzaina: Maite Asensio (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)
- Idazkaria: Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra)
- Bazkideen ordezkariak:
  - Estiñe Astorkia (ARTEZ Euskara Zerbitzua)
  - Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea)
  - Josune Etxaniz (Eusko Ikaskuntza)
  - Eider Alustiza (EMUN Koop. Elk.)
  - Nekane Arratibel (HUHEZI Koop. Elk. – Mondragon Unibertsitatea)

BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2018an 9 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Uxoa Anduaga Berrotaran
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Isabel Godinez Hidalgo
- Imanol Larrea Mendizabal (zuzendaria)
- Maddalen Lizaso Urretabizkaia (bekaduna)
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain

3

Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten 20 egitasmo baino gehiago

PROIEKTUAK

01. Aldahitz ..... 10 or.
02. Berba-lapiko ..... 11 or.
03. Berbekin ..... 11 or.
04. Ahozkotasuna: prestakuntza saioak eta tailerrak ..... 12 or.
05. "Ahozko komunikazioa irakastea. *Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*" Gidaliburua ..... 13 or.
06. Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia) ..... 14 or.
07. Euskararen Adierazle Sistema (EAS) ..... 15 or.
08. Herrietako euskararen erabileraren azterketa ..... 16 or.
09. Arrue Proiektua ..... 17 or.
10. D ereduko kirola ..... 18 or.
11. *Euskaraldia*ren ikerketa ..... 19 or.
12. Jendaurrean Erabili ..... 20 or.
13. EHUko Uda Ikastaroa: "Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten" ..... 21 or.
14. Gipuzkoa Berdinago ..... 22 or.
15. Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa ..... 23 or.
16. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak ..... 24 or.
17. Behaketa Bidezko Hizkuntzen Erabileraren Neurketak EHUn ... 25 or.
18. Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa ..... 26 or.
19. Soraluzeko bilakaera soziolinguistikoa eta prospektiba ..... 27 or.
20. XI. HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak ..... 28 or.
21. X. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia ..... 29 or.
22. BAT Soziolinguistika Aldizkaria ..... 30 or.
23. Soziolinguistika Albistaria ..... 31 or.
24. Eusle Hezkuntzan ..... 32 or.
25. Hizkuntza-ohiturak Osakidetzan ..... 33 or.

01

Aldahitz Ikerketa

Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)
SL Klusterreko langileak | Pablo Suberbiola eta Asier Basurto
Garapen Taldea |
- Nerea Ibarluzea (Ahize-AEK)
- Jon Mentxakatorre (Artez)
- Ainara Ibañez (Elhuyar Aholkularitza)
- Kristina Pavo (Emun)
- Sonia Isasi eta Julene Moyano (Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Nekane Jauregi (Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza)

Eusle metodologia, *Ulerrizketa metodologia* eta *Uler-saioak metodologia*rekin, hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak errazteko "sistema integrala" osatzea du xede ikerketak. 2018. urtean zehar, "sistema" hori osatzen duten hiru tresnen gainean egin da lan.

*Eusle metodologia*n, 2017an eginiko esperientzien txostena osatu da, eta, EHUko "Aktibatu!" programan, metodologiaren gaineko saioak egin dira.

*Ulerrizketa metodologia*n, 2017an abiatutako prototipoa itxi da, formazio-saioa eskaini da eta hiru esperientzia garatu dira (Arrasaten, Gasteizen eta Erandion). Horrez gain, metodologiari buruzko bideoa eta argitalpena landu dira.

*Uler-saioak metodologia*ri dagokionez, 2017an abiatutako prototipoa itxi da, eta aurrera begirako garapenaz hausnarketa egin da.

Zabalkunde mailan, azkenik, "Eusle metodologia: gaztelanian finkatutako hizkuntza-ohituretatik euskarazkoetara lan-munduan" artikulua argitaratu da BAT aldizkariaren 107. zenbakian, eta komunikazio bana aurkeztu da Udaltop jardunaldian eta Vigoko hizkuntzalaritza kongresuan (*XIII Congreso Internacional Lingüística Xeral*).

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

02

Berba-lapiko

Zuzendariak | Agurtzane Azpeitia eta Idurre Alonso (HUHEZI)
SL Klusterreko langilea | Olatz Bengoetxea
Partaideak | Rontegi eskola, Muskizko ikastola, Berritzeguneetako aholkulariak, EHUko ELEBILAB iker-taldeko kideak

"Komunikaziorako konpetentzia praktikoa eta eraginkorra eskuratzeko" bidea egiteari (Heziberri 2020) heldu nahi zaio ahozko hizkuntza ardatz duen egitasmo honetan, ulertuta "hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarrituta" eraiki daitekeela. Era berean, "Tolosako laborategia" Ikerketako eskarmentua baliatzen ari da trebakuntza-ikerkuntza honetan. Zehazki, testuinguru erdaldunetan ikasleen ahozko hizkuntzaren gaitasunari eta erabilerari buruz ikertu nahi da. Material berria sortu nahi da eta ikasleen komunikaziorako konpetentzietan sakondu, irakasleen prestakuntzarekin uztartuta.

Hiru urteko proiektuan, hainbat metodologia probatuko dira; hala, ikasturte honetan Sekuentzia Didaktikoa (Schneuwly et al., 1993, 1998) metodologiaren gainean egin da ikerketa-lana. Testuinguru soziolinguistiko erdaldunetako Lehen Hezkuntzako 5. mailarako bi Sekuentzia Didaktiko diseinatu, inplementatu eta baloratu dira.

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila

03

Berbekin

Zuzendaria | Ines Garcia-Azkoaga (EHU)
SL Klusterreko langilea | Olatz Bengoetxea
Partaideak | Aranzadi Ikastola, Ipintza Bergarako Institutua, Mariaren Lagundia Ikastola, Bergarako Udala.

2014tik martxan dagoen proiektuak helburutzat du aztertzea eskola-eremuetan, irakaslearen esku-hartzearen bitartez, euskararen erabilera sustatzeko sortzen diren aukerak; hau da, zeintzuk diren esku-hartze egokienak ikasleek euskaraz gehiago eta hobeto egin dezaten.

"Edozein irakasle da hizkuntza-irakasle" oinarrizko pentsamendutik bideratu da ekintza-ikerketa hau hainbat arlotako irakasleekin elkarlanean; bereziki, LHko 3. zikloko eta DBHko 1. zikloko irakasleekin. Behaketa bidezko metodologia baliatu da, horretarako.

2018an, ikasgelan euskararen erabilera eta gaitasuna hobetzeko praktika onei erreparatu eta horiek finkatzeko bidea izan da xede. Ikastetxe bakoitzeko programazioetan eta Hizkuntza Proiektuetan, Berbekin proiektuak emandako ezagutza modu praktikoan txertatzeko lana egin da, ikastetxe bakoitzaren beharretara eta aukeretara egokituz.

Babesleak:
- Bergarako Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila

04

Ahozkotasuna: prestakuntza-saioak eta tailerrak

SL Klusterreko langileak |
Olatz Bengoetxea eta Isabel Godinez
Partaideak |
- Alonsotegi Eskola
- Belaskoenea Ikastetxea
- Ekintza Ikastola
- Gainzuri Ikastetxea
- Haztegi Ikastola
- Larreagaburu - Mina Del Morro Ikastetxea
- Barakaldoko Hizkuntza Eskola
- Donostiako Berritzegunea
- Gasteizko Berritzegunea
- Galdakaoko Berritzegunea

Azken urteetan nabarmen egin du gora Soziolinguistika Klusterrak ahozko hizkuntzaren gaiari buruz bideratutako prestakuntzek edota emandako hitzaldiek. Bi bidetatik eskaini dira formakuntza-saioak: IRALE programan eta IRALE programatik kanpo.

IRALE programan, bi formazio mota aurkeztu dira: "Ahozko hizkuntzaren lanketa hizkuntza-normalizazioaren altzotik" izenekoa (H409A kodea) eta "Ahozkotasuna irakasteko metodologia eta baliabideak" izenekoa (I kodea). 2017-18 ikasturtean, eskaintza berrietan jarri da arreta: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Berritzeguneetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan eta ahozko hizkuntzaren gaia normalkuntza-programan txertatzea helburu izan duten ikastetxeetan.

IRALE programatik kanpo, hainbat formazio eta hitzaldi eman dira, zuzenean lotura dutenak gaiaren gainean ikertzen ari denarekin.

Bestalde, "Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?" lantegia antolatu da Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroetan, Barakaldoko Clara Campoamor Kultur Etxean. Bereziki praktikan oinarritu da tailerra: gogoetatu da gai honen gaineko oinarri soziolinguistiko eta pedagogikoez, hainbat esperientziaren berri izan da eta ahozko komunikazioa lantzeko jarduerak esperimentatu eta sortu dira.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
- EHUko Uda Ikastaroak

05

“Ahozko komunikazioa irakastea. Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan” Gidaliburua

Egilea | Josune Zabala
Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea
Partaideak |
- Laskorain ikastola
- Hirukide ikastetxea
- Orixe BHI

“Tolosako laborategia” Ikerketan oinarritzen da lan hau. Laborategia 2010etik 2014ra Tolosako 3 ikastetxeetan (Laskorain ikastola, Hirukide ikastetxea eta Orixe BHI) gauzatu zen, eta Bigarren Hezkuntzan ahozko hizkuntza lantzeko materialetan eta irakasleen esku-hartzean jarri zuen begirada. Gidaliburu honek ikerketa hartatik edaten du hain zuzen, eskola-sistema osoari begirako ekarpenak egin nahian, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino. Irakasleentzako ez ezik, ikasgelan, ahozko hizkuntza ere irakatsi nahi duenari zuzenduta dago.

Gidaliburu zentzua eman nahi izan zaio lan honi. Edukiak azalpen laburrez emateaz gain, gogoetarako proposamenak daude, baita ariketak ere. Aukera ematen du bakarkako irakurketaren bidez liburuari jarraipena egiteko; baina, parada ematen du, baita ere, irakurketa modu kolektiboan egiteko eta bertako proposamenen gainean eztabaidatu eta ideiak idatziz jasotzeko.

Gidaliburua EAEko hezkuntza-sare osoan banatu da, eta, horrez gain, salgai dago ELKAR liburu-dendetan.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
- Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Tolosako Udala

06

Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia)

SL Klusterreko langilea | Olatz Bengoetxea
Partaideak |
Zumaia:
- Maria eta Jose ikastetxea
- Zumaiako Herri Eskola
- Oikiako eskola
- Zumaiako Institutua
- Zumaiako euskara teknikaria

Azpeitia:
- Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai
- Iraurgi ikastetxea
- Ikasberri Azpeitiko Ikastola
- Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI
- Azpeitiko euskara teknikaria

Azpeitiko eta Zumaiako gazteen artean hitanoaren erabilera-konpetentziak ezagutarazi, landu eta aberasteko egitasmoa da honakoa. Hitanoaren erabilerak euskararen erabileran eta ezagutzan izan dezakeen eragin baikorraz jabetuta ekin zitzaion egitasmoari.

2010etik eta 2015era hitanoa sustatzeko materiala sortu eta probatu zen Azpeitiko eta Zumaiako ikastetxe guztietako irakasleekin elkarlanean. Bide horren emaitza den materiala erabiltzen ari da Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara. Hitanoaren erabilera sozialak ezagutu, hitanoa darabiltenengana hurbildu eta erabiltzeko helburua du. Dagoeneko ikastetxe guztietan txertatu da, eta modu sistematikoan lantzen da. Urtetik urtera, materialaren gaineko proposamen berriak biltzen dira.

Babesleak:
- Zumaiako Udala
- Azpeitiko Udala

Zumaiako Udala

azpeitia udala

07

Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

SL Klusterreko langilea | Olatz Altuna
Partaideak |
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua, Euskarabidea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia

Euskal Herri osoko euskararen egoera sozialaren berri ematen duen adierazle-sorta da. Egitasmo honek erreminta izan nahi du, zeinak gizartearen hainbat esparrutako eta une jakin bateko hizkuntzaren zabalkundea eta denboran zeharreko bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balioko duen.

2013. urtean abiatu zen EAS proiektua, eta hastapenetik egitasmoaren oinarria erakundeen arteko adostasuna eta lankidetza izan dira.

Gaur egun, 33 adierazleren informazioa kontsulta daiteke EASen. Adierazleak arloka sailkatuta daude: Familia, Hezkuntza, Helduen Euskalduntzea, Administrazioa, Sozioekonomia, Kultura, Harreman Informalak eta Aisialdia, Ingurune Digitala eta Soziodemografia.

2018an zehar adierazle berriak gehitu zaizkio sistemari eta adierazle batzuen datuak eguneratu egin dira. Lurralde batzuetako datuak soilik zituzten lau adierazletan, euskararen lurralde osoari buruzko informazioa biltzeko urratsak eman dira. Big data tekniken bidez datuak ustiatzeko aukerak aztertu dira arloko espezialistekin. Gai edo arlo batzuetako adierazleetan sakondu eta hobetzeko ahalegin espezifikoa egin da: unibertsitatea eta ingurune digitala.

EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

08

Herrietako euskararen erabileraren azterketa

SL Klusterreko langileak | Olatz Altuna eta Imanol Larrea
Partaidea | Natxo Sorolla (Universitat Rovira i Virgili)

Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore soziolinguistikoen eta soziodemografikoen azterketa egin da. Azterlan honek hurbilpen estatistiko kuantitatibotik heldu nahi dio euskararen erabilerarekin lotzen diren faktoreen identifikazioari.

Horretarako, hainbat aldagai soziolinguistiko eta soziodemografiko baliatu dira. Aldagai soziolinguistikoen artean bi dira: hizkuntzaren ezagutza eta lehen hizkuntza. Aldagai soziodemografikoen multzoa, berriz, oso zabala da: hezkuntza-eredua, biztanleriaren adina, jatorri demografikoa, migrazio-saldoa, udalerriko biztanleriaren tamaina, jaiotza-tasa, heriotza-tasa, hazkuntza begetatiboa, lan-mugikortasuna, hezkuntza-mugikortasuna, egoera zibila, familia eredua eta tamaina, ikasketa-maila, langabezia-tasa, establezimenduak, barne-produktu gordina, errenta, balio erantsi gordina, nekazal lurzoruaren banaketa eta lurraren okupazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) herriak dira analisi-unitatea, eta horien kaleko erabilera-portzentajeak eta etxe-giroko erabilera-portzentajeak dira ikerketaren ardatza.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia

09

Arrue Proiektua

Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna
SL Klusterreko langileak | Pablo Suberbiola eta Uxoa Anduaga
Jarraipen Batzordea |
- Iñigo Barruso, Ibon Olaziregi eta Lucia Torrealday (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila)
- Xabier Aizpurua eta Eduardo Ubieta (ISEI)
- Josune Zabala (Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Iñaki Garcia (EHU)

Arrue proiektua 2003. urtetik ari da aztergai orokor baten gaineko ikerketan: ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabileren azterketari.

2018ko lan nagusia 2011-2017 arteko datuen gaineko analisiak egitea izan da. 2017an laugarren aldiz neurtu ziren EAEko ikasleen hizkuntza-erabilerak (9-10 eta 13-14 urteko ikasleenak). Erabileren bilakaeren azterketa eta hainbat aldagairen araberako analisiak egin dira. Azterketaren emaitzak "*Arrue Ikerketa. EAEko ikasleen Euskararen erabilera Eskola-Giroan, 2011-2017. Txosten Teknikoa*n" jaso dira, eta "Arrue 2011-2017, Emaitzen gaineko foroa" antolatu da.

Analisi horiez gain, bere hizkuntza-erabileragatik *nabarmentzen diren* ikastetxeen atalean, *Ulibarri Programa*ko ikastetxeen datuak alderatzeko urratsak eman dira.

Datuen gaineko dibulgazioari dagokionez, 2011-2015 epeko emaitzen gaineko txosten exekutiboa argitaratu da, euskaraz eta gaztelaniaz.

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

10

D ereduko kirola

Zuzendaria | Jone Miren Hernandez (EHU)
SL Klusterreko langilea | Pablo Suberbiola
Partaideak |
- Jaime Altuna, Iñigo Beitia, Maialen Altuna eta Iraitz Otaño (EHU)
- Begoña Basterretxea (Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Nekane Jauregi eta Beñat Egues (Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza)
- Julene Maia eta Maite Asensio (Urtxintxa)
- Sonia Perez (Topagunea)

Ikerketa eta esku-hartze esperimentala uztartzen dituen proiektua da, eta aztergai nagusitzat du haurren eta gaztetxoen euskarazko sozializazioa, aisialdiko kirolaren eremuan.

2016an abiatutako proiektuari amaiera eman zaio 2018. urtean, hiru urteko ikerketa-ekintza zikloa itxiz. Ziklo horren azken urratsa izan da hiru klubetan esku-hartze esperimental bat egitea entrenatzaile eta jokalariekin (Gasteizen, Arrigorriagan eta Donostian). Prozesu hori ikertu egin da, jokalari gazteen hizkuntza-jokaera, bizipen eta adierazpenei arreta berezia eskainiz.

Esperimentazioa eta ikerketa-lana amaiturik, hiru urteko ikerketaren eta proiektuaren ondorioak lantzeaz gain, proiektuaren gaineko emaitzak eta proposamenak komunikatzeko argitalpen laburra ere osatu da. Emaitzen zabalkundea eta partekatze-saioa 2019an egingo dira.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

11

*Euskaraldia*ren ikerketa

Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)
SL Klusterreko langilea | Uxoa Anduaga

2018ko Euskaraldiak herritarren hizkuntza-ohituretan nolako eragina izan duen aztertzeko ikerketa-proiektua da. Bi lan-ildo ditu: kuantitatiboa eta kualitatiboa.

Lehenarekin, Euskaraldiko izen-emaileen hizkuntza-ohiturak eta horien aldaketa kuantifikatzea bilatzen da. Horretarako, Euskaraldiko parte hartzaileek betetzeko hiru galdetegi prestatu dira, eta horietako lehen biak posta elektronikoz bidali dira Euskaraldia hasi aurretik eta amaitu berritan. Guztira 220.000 pertsona ingururi bidali zaizkio galdetegiak. 2019an bidaliko da hirugarren galdetegia eta aztertuko dira jasotako datuak.

Bestetik, lan-ildo kualitatiboari dagokionez, Euskaraldiari buruz gizartean sortutako iritziak eta diskurtsoak ezagutzea da helburua. Horretarako, Euskaraldian izena eman duten herrien lagin bateko batzordekide eta herritarren iritziak bildu dira galdetegi irekien bidez.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Nafarroako Gobernua, Euskarabidea
- Kutxa Fundazioa

12

Jendaurrean Erabili

Ikerketa-taldea | Beatriz Zabalondo, Eduardo Apodaka, Idurre Eskisabel eta Irati Agirreazkuenaga
SL Klusterreko langileak | Asier Basurto eta Uxoa Anduaga
Praktika-komunitateko kideak | AEK, Guggenheim Bilbao Museoa, Elhuyar Fundazioa, Sakanako Mankomunitatea, Artez Euskara Zerbitzua, Donostiako Udala, Bai euskarari elkartea, Getxoko Udala, Mutualia, ELA, Emun, Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Mondragon Korporazioa, Eusko Legebiltzarra

Jendaurreko komunikazioan euskara gehiago, hobeto edo eraginkorrago erabili nahi duten erakunde eta eragileek bide hori elkarrekin egiteko praktika-komunitatea osatu zuten. Hainbat arlotako eta izaerako eragile sozialentzako zein erakunde publikoentzako eta pribatuentzako euskarazko komunikazioaren gaineko esperientziak partekatu eta elkarrengandik ikasteko gune aktiboa da.

Urtearen hasieran, ikerketa-taldearen laguntzaz, praktika-komunitateko erakunde kide bakoitzak bere barne-erronka ezarri zuen jendaurreko komunikazioan euskararen erabilera handitzeko. Urtean zehar kide bakoitzak erakundean egin du lana, eta kontsulta puntualak kudeatu dira ikerketa-taldetik.

Proiektuaren urteko jarduna aurrez aurreko saioetan ardazten da; 2018an bost izan ziren: Bilbo (otsailak 23), Altsasu (Apirilak 19), Donostia (ekainak 8), Eibar (Urriak 26) eta Gasteiz (Abenduak 14). Bost aurrez aurreko saio horietatik lautan eduki zehatz bati buruzko formazio-hitzaldia ere eskaini da, eta azken saioan, urteko balantzea egin da:

- Otsailak 23: "Jendaurreko hizkuntza-erabilera. Esperientzia konplexu bat", Xabier Paya
- Apirilak 19: "Hizkuntza-aktibaziorako gakoak Proiektua", Amaia Balda
- Ekainak 8: "Eledunen formakuntza", Idoia Goñi eta Eli Azpiroz
- Urriak 26: "Markagintza eta publizitate elebiduna", Estitxu Garai
- Abenduak 14: Urrats berriak baloratu eta bidean agertutako oztopoak gainditzeko ideiak partekatu.

Erakundeen arteko bisita gurutzatuak sustatu dira. Erakunde bakoitzak praktika-komunitateko beste erakunde bat bisitatu du gutxienez, bere errealitatea eta praktikak bertatik bertara ezagutzeko, gidoi bati jarraiki. Bisiten ostean, aurrez aurreko saio batean bisiten banan-banako kontakizunak entzun ahal izan ditu talde osoak.

"Hedabide eta erakundeen arteko harremanak" ikerketa martxan dago. Hedabideek hizkuntzekiko dituzten praktikak eta jarrerak sarritan erakundeen erabileraren baldintzatzaile izaten dira. 2018an praktika-komunitateko erakundeekin hainbat *focus group* eta hainbat hedabideetako arduradunekin elkarrizketa sakon batzuk egin dira.

Babesleak:
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

13

EHUko Uda Ikastaroa: "Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten"

EHUren Uda Ikastaroetan uztailaren 9an eta 10ean Bilboko Bizkaia Aretoan egindako uda ikastaroak funtzio bikoitza bete du proiektuan. Alde batetik, beste hitzaldiek bezala zenbait ezagutza eta eredu praktika-komunitatera ekartzeko balio izan du. Bestetik, kanpora begira, beste erakunde batzuei eta gizarteko sektore batzuei proiektuan egiten ari dena eta sortzen ari diren hausnarketak kanporatzeko aukera eman du.

2018-07-09

09:15 - Jendaurrean Erabili: praktika, komunitatea eta ikerketa (Beatriz Zabalondo Loidi - Euskal Herriko Unibertsitatea)

11:00 - Hizkuntzen kudeaketa: gobernantza eta aktibismoaren artean. Jakintzatik praktikara eta praktikatik jakintzara. (Eduardo Apodaka - Euskal Herriko Unibertsitatea)

12:15 - Hizkuntzen kudeaketaren eredu konplexu bat: Donostia Zinemaldia (Ruth Pérez de Anucita - Donostia Zinemaldia)

15:00 - Mahai ingurua: Gipuzkoa Berdinago proiektua: bidea elkarrekin urratzea. (Mikel Irizar Intxausti, Joseba Imaz-Gipuzkoako Foru Aldundia, Ariana Barrena-Kaiku, Javier Marcos-Mondragon Korporazioa)

2018-07-10

09:15 - Euskararen erabileraren tokia Athleticen jardunean: praktikak, zailtasunak eta ikasgaiak (Patxi Xabier Fernández- Athletic Club)

11:00 - Kazetaria euskaraz lan egiten: gaur atzo baino errazago? (Arritxu Iribar-Euskadi Irratia)

12:15 - Komunikazioa, hizkuntzak eta hedabideen papera Euskal Herrian" (Iñaki Soto Nolasco - Gara)

15:00 - Mahai ingurua: Praktikatik eta komunitatean urratsak ematen (Ana Lopez de Munain Guggenheim Museoa, Gorka Quevedo ELA, Jon Zarate Sesma EHU, Monika Rodrigo Getxoko Udala)

14

Gipuzkoa Berdinago

SL Klusterreko langileak |
Asier Basurto eta Uxoa Anduaga
Partaideak |
Gipuzkoa Berdinago-ko kideak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Adegi, Basque Culinary Center, Bera-Bera Eskubaloia, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako Udala, DYA Gipuzkoa, EHU, SD Eibar, Real Sociedad, Laboral Kutxa, Kaiku, Kutxabank, Kutxa Fundazioa, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Fagor Taldea, CAF

Gipuzkoako denetariko erakunde erreferentzialek jendaurreko komunikazioan hizkuntza-berdintasunerantz bide partekatua egiteko sortutako taldea da. Jendaurrean Erabili proiektutik abiatu zen Gipuzkoan lan-ildo berezitu hau sortzeko asmoa.

2017an zehar 18 erakunde, enpresa, talde eta klubek adostutako "Gipuzkoa Berdinago" adierazpenaren gauzatzera bideratu da 2018ko jarduna. Adierazpeneko neurriak gauzatzeko, kide bakoitzak bere erakunde barrurako zenbait erronka ezarri zituen urte hasieran. Urtea hauek aurrera eramaten eman ostean, urte amaieran partekatze- eta baloratze-saioa egin da.

Elkarren jarraipenerako eta interes komuneko gaiak jorratzeko bilera puntualetan, bi arloren lanketa da azpimarratzekoa: gaztelaniazko hedabideekiko harremana eta marketing eta publizitatea.

- **Lehenengoari dagokionez, prentsaurreko eta agerraldietan gaztelaniaz lan egiten duten kazetariei aldibereko interpretazioa eskaintzeko aukerak aztertu eta baloratu dira.**
- **Bigarren arloan, berriz, sektoreko enpresekin harreman-bide zuzenak zabaldu eta euskarazko kalitatezko publizitatea eta komunikazioaren beharra azaleratu da, horretarako beharrezko ikuspegia eta prozedurak zein diren xehetasunean aztertuz.**

Era berean, erronka bateratu bezala saiakera egin da Euskaraldiak iraun bitartean (azaroaren 23tik abenduaren 3ra), elkarrekin sinkronizatuta praktika berriak, euskararen erabileran urrats bat suposatzen dutenak, probatzeko.

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

15

Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa

Zuzendaria | Xabier Aierdi
SL Klusterreko langilea | Belen Uranga
Partaideak | Topagunea, Emun, Elhuyar

Euskara, gaztelania eta ingelesa ez diren Gipuzkoako biztanleriaren hizkuntzak identifikatuz, lurraldeko hizkuntza-aniztasunaren mapa egitea da helburua. Horretarako, biztanleriaren jatorria kontuan hartu da, eta hipotesi mailan lurralde horietako hizkuntzen presentzia deskribatu da.

Aniztasunaren ezaugarriak ezagutzeko honako alderdi hauek aztertu dira: adinaren eta sexuaren banaketa geografikoa lurraldean, hiriburuan, beste udalerrietan, eskualdeetan eta azpi-eskualdeetan.

Identifikatutako aniztasunaren kudeaketa egokiaren aldeko zenbait neurri ere proposatu dira, helburu hauekin: sentiberatze-esparruan, gizartean hizkuntza-aniztasuna aberastasun eta aukera bezala hauteman dadin, eta jatorri atzerritarreko biztanleriak bertako hizkuntza-aniztasuna eta euskararen egoeraren berri zuzena izan dezan; eta kudeaketan, hiztun-kopuru altuko hizkuntzen aurreko ekimenak proposatzeko, eta hiztun-kopuru txikiko hizkuntzen aniztasunak denok ukitu gaitzan.

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

16

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak

SL Klusterreko langileak |
Belen Uranga, Asier Basurto, eta Olatz Altuna

"Zenbat erabiltzen da euskara kalean?", galdera horri erantzuten dio ikerketak, eta hizkuntzen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu diren datuak eskaintzen ditu. Datu hauek berebiziko garrantzia dute herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko, eta euskararen aldeko sustapen-planak burutzeko.

Erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz sortu eta garatu zen hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Soziolinguistika Klusterraren sorreratik aritu gara hizkuntzen erabileraren kale-neurketak egiten, eta dagoeneko ehundik gora dira inoiz neurketa burutu duten herriak; areago, gero eta gehiago dira maiztasun jakin batekin neurketa errepikatzen dutenak, euskararen erabileraren bilakaera gertutik jarraitu ahal izateko.

2018an honako herri hauetan egin da kale-neurketa: Azkoitian, Basaurin, Elorrion, Getxon, Lazkaon, Pasaian eta Zizurkilen.

Babesleak:
- Azkoitiko Udala
- Basauriko Udala
- Elorrioko Udala
- Getxoko Udala
- Lazkaoko Udala
- Pasaiako Udala
- Zizurkilgo Udala

17

Behaketa Bidezko Hizkuntzen Erabileraren Neurketak EHUn

SL Klusterreko langileak |
Belen Uranga eta Olatz Altuna

Euskal Herriko Unibertsitatearen hiru campusetan behaketa bidezko Hizkuntzen Erabileraren Neurketa pilotuak egin dira. Euskal Herriko kale-neurketaren metodologia baliatuz, eta egokitzapen propioak eginez, honako fakultate hauetan egin dira neurketak:

- **Bizkaiko Campusean: Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.**
- **Arabako Campusean: Farmazia Fakultatean, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean eta Letren Fakultatean.**
- **Gipuzkoako Campusean: Informatika Fakultatean eta Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean.**

Proiektua EHUko euskararen erabilera sustatzeko AKTIBATU programan kokatzen da. Neurketa egiten den lehen aldia izanik, bildutako datuek euskararen erabilera areagotzeko ekimen eta plangintza zehatzak diseinatzen lagunduko dute, betiere campus bakoitzari egokituak. Neurketa horiek beste fakultate batzuetara zabaltzea eta urte-tarte zehatzetan errepikatzea da asmoa.

Babesleak:
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Donostiako Udala

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

18

Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa

Zuzendaria | Zesar Martinez (EHU)
SL Klusterreko langilea | Imanol Larrea
Partaideak |
- Amaia Balda (EMUN)
- Joxean Amundarain eta Izaro Ugalde (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Helene Armentia (Elhuyar)
- Mikel Ozaita (Euskaltzaleen Topagunea)
- Edurne Otamendi (Donostiako Udala)

Proiektuaren helburu nagusia da herri eta eskualdeetan euskararen inguruko aktibazioa eragiteko metodologia sortzea, euskararen erabilerak gora egin dezan.

Proiektuak bi fase izan ditu. 2016an, proiektuaren lehen fasea landu zen; alegia, aktibaziorako gakoak identifikatu ziren. Horretarako, hainbat esperientzia arrakastatsu aztertu ziren, euskalgintzakoak eta beste arlo batzuetakoak. Proiektuaren bigarren fasea 2017an abiatu zen. Fase horretan esku-hartze pilotuak edo kontrolatuak egin dira bi gunetan: Arrasaten, euskalgintza biltzen duen Geike-ren talde motorrarekin, eta Tolosaldean, Tolosaldeko Euskararen Mahaia abian jartzearen testuinguruan.

Bietan euskalgintzako eta administrazio publikoko eragileekin elkarlanean landu da aktibaziorako bidea. Bi gune horiei beste bat gehitu zitzaien 2018an: Eibar. Bertan lantzen ari den Akebai ekimena aztertu eta dokumentatu da. Proiektuari 2015. urtearen bukaeran eman zitzaion hasiera eta 2018an bukatu da.

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

19

Soraluzeko bilakaera soziolinguistikoa eta prospektiba

Proiektu Taldea | Iñaki Martinez de Luna, Estiñe Astorkia eta Abel Irizar
SL Klusterreko langilea | Asier Basurto

Soraluzen hainbat ikerketa soziolinguistiko egin izan dira azken urteotan; bai Udalaren ekimenez edo bai herritar zehatzen ikasketen testuinguruan. Gainera, aurrera begirako lan-ildoak finkatzerakoan, parte hartze bidez ekarpenak jasotzeko prozesuak ere aurrera eraman izan dira. Soziolinguistika Klusterraren eskutik Soraluzeko Hizkuntzen Kale-Erabilearen neurketa eta Haur, gazte eta gurasoen hizkuntza-ohituren azterketa egin da. Aurrez aipatutako ikerketa, azterketa eta egitasmoei loturik, azken hauen emaitzak oinarri hartuta herrian euskararen biziberritzearen norabidean egin beharreko lanean lehentasunezko lan-ildoak definitzeko aukera egokia ikusi da.

Proiektu honen helburu nagusia honakoa izan da: Soraluzeko Udalarekin eta euskalgintzarekin elkarlanean datu soziolinguistikoak interpretatzea eta aurrera begirako nondik norakoak finkatzen laguntzea.

2017ko ekainetik 2018ko ekainera, honako prozesua eraman da aurrera:

- Ikerketa, azterketa eta oinarrizko datuen bilduma osatu
- Bilakaera soziolinguistikoaren interpretazioa egin
- Herritar eta eragileekin kontrastea egin
- Aurrera begirako ikuspegia txertatu eta azken txostena osatu

Babeslea:
- Soraluzeko Udala

SORALUZEKO UDALA

20

XI. HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak

SL Klusterreko langileak | Belen Uranga, Isabel Godinez, Asier Basurto
Epaimahaia | Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat, EHU irakasle bat eta Soziolinguistika Klusterreko ordezkari bat.
BAT Argitalpen Batzordearen laguntza teknikoa.

HAUSNARTUren helburua da soziolinguistikako ikerketa sustatzea, diziplina artekoa sendotzea eta euskara biziberritzeko ikerlanik onenak saritzea. Euskal Soziolinguistika Sarien XI. edizioa izan da 2018koa. Abiapuntutik gertatu bezala, bere antolaketan leku berezia du BAT aldizkariaren Argitalpen Batzordeak.

Urtero bezala, hainbat jakintza-arlotatik euskal soziolinguistikari ekarpena egiten dioten lanak jaso dira. Horien artean, epaimahaiaren erabakia izan da sariak honako egile hauek ematea:

- **LEHEN SARIA: Izaskun Kuartango, "Bezero misteriotsuaren teknika herri-administrazioetako zerbitzu-hizkuntzaren ebaluazioan" lanagatik.**
- **BIGARREN SARIA: Miren Artetxe, "Hiztun berriak eta bertso-mundua" lanagatik.**
- **HIRUGARREN SARIA: Irati Lizeaga, "Lintzirin: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan oinarritutako Euskara Sustapen Ekintza Plana (ESEP)" lanagatik.**

Sari-emate ekitaldia 2018ko azaroaren 6an Bilboko Bizkaia Aretoan (EHU) burutu da, X. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian. Era berean, urtero legez, lan irabazleak BAT Soziolinguistika Aldizkarian (109. zenbakian) publikatu dira.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

21

X. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia

SL Klusterreko langileak |
Asier Basurto eta Belen Uranga

Euskararen biziberritzearekin loturiko soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatzeko eta esperientzia berriak proposatzeko urteroko bilgunea da. 2008an egin zen lehen edizioa eta ordutik urtero-urtero, euskararen inguruan lanean diharduten teknikari, ikerlari, eragile sozial eta arduradun politikoak elkartu izan ditu.

2018ko edizioa azaroaren 6an Bilboko Bizkaia Aretoan (EHU) burutu da, eta gai nagusitzat hartu dira hizkuntzek ingurune digitalean dituzten erronkak. Mundu mailan arlo honetan erreferentziala den Andras Kornai adituak parte hartu du. Euskararen komunitatetik gaia lantzen diharduten ikerlariek eta adituek ere beren ikuspegia eman dute (Maite Goñik Euskararen Aholku Batzordetik, Josu Aztiriak Elhuyarretik, Aitzol Astigarragak Euskal Wikilarien Elkartetik, Arantxa Diaz de Ilarrazak IXA taldetik, Josu Waliñok PuntuEus Fundaziotik eta Xabier Landabideak Deustoko Unibertsitatetik). Gai hau lantzeko tailer parte hartzailea gidatu du, gainera, Azkue Fundazioak.

Jardunaldian izan da, hala ere, beste gai batzuk lantzeko aukera. Tailer banatan, herritarren aktibazio proiektuetako gakoei buruz eta Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren maparen gainean jardun da.

Era berean, lehen aldiz, Hausnartu soziolinguistika sarien banaketa ekitaldia egin da jardunaldian. Sariak jasotzearekin batera, hiru saridunen lanen lagin txiki bat ezagutzeko aukera izan da.

Amaitzeko, Soziolinguistika Klusterrak martxan dituen proiektuetatik ateratako zenbait ideia eta ikasgai azaldu dira, modu arin eta originalean.

Babesleak:
- Bilboko Udala
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Azkue Fundazioa
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

22

BAT Soziolinguistika Aldizkaria

Zuzendaria | Iñaki Martínez de Luna
SL Klusterreko langileak | Belen Uranga eta Isabel Godinez
Argitalpen Batzordea | Estibaliz Amorrortu, Maria-Jose Azurmendi, Paula Kasares, Beñat Garaio, Eneko Gorri, Lionel Joly, Jone Miren Hernández, Inma Muñoa.

Euskal soziolinguistika gaia euskaraz lantzen duen aldizkari espezializatua da. BAT Aldizkaria 1990ean jarri zuen abian Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren ekimenez; 2004tik aurrera, Soziolinguistika Klusterrak argitaratzen du.

Zenbakiak gai monografiko baten gainean antolatzen dira, ezaugarri zientifiko eta kalitate-maila betetzen duten artikuluak bilduz. Gai horiek euskal soziolinguistika-esparrukoak edota ikastaro edo jardunaldi berezituei buruzkoak izan daitezke. Horrez gain, zenbaki bakoitzean gai monografikotik at bi artikulu ere argitaratzen dira: Euskal Herrikoa *Gurean* atalean eta nazioarteko ikuspegikoa *Munduko Soziolinguistikaren Leihoa*n.

2018an honako zenbaki hauek argitaratu dira:

106.a: Euskal Soziolinguistikaren 2016ko datu estatistikoak
107.a: Euskaltzaletasunaren aktibazioa (II)
108.a: Osasungintza eta euskara
109.a: XI. HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak

Zenbaki guztiak doan Soziolinguistika Klusterraren webgunean: http://www.soziolinguistika.eus/bat (azken urtekoak ordainpean bertan).

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia

23

Soziolinguistika Albistaria

SL Klusterreko langilea | Asier Basurto
Partaidea | Leire Muxika (EMUN)

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala da. 2016an martxan jarri zenetik 48 zenbaki zabaldu dira. 2018. urtean, zehazki, 29.etik 48.era.

Bi astean behin 15-20 albiste inguru zabaltzen dira ehundaka harpidedunen posta elektronikotara, honako atal hauetan antolatuta: Soziolinguistika Klusterrekoak (1); Ikerketak (2); Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak (3); Liburuak eta argitalpenak (4); eta bestelakoak (5).

Albistariaren diseinu grafikoa berritu da 2018an.

Gainera, albistariaren kudeaketa, kalitatea eta zabalpena etengabe ebaluatu eta hobetzeari begirako jarraipen sistematikoa egin da.

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

24

Eusle Hezkuntzan

Zuzendaria | Pello Jauregi
SL Klusterreko langilea | Pablo Suberbiola
Partaideak | Iñigo Barruso, Itziar Lafuente, Markos Bilbao eta Iñaki Biain (EJ- Hezkuntza Saila), Agus Mujika (EGB) eta Joseba Antxustegietxarte (Hirukide ikastetxea).

Proiektu honen bitartez Eusle metodologiaren hezkuntza arloko bertsio bat sortu eta aplikatu nahi da. Metodologia berri hori eskolako testuinguruan ikaskideen arteko euskarazko erabilera areagotzeko baliagarri izatea da asmoa.

Bi abiapuntu ditu. Batetik, Aldahitz proiektuan sorturiko Eusle metodologia, eta bestetik, Arrue proiektua. 2018ko urtarrila eta uztaila bitartean Eusle metodologiaren hezkuntzako lehen prototipoa sortzeko lanak egin dira (Lehen Hezkuntzako 6. eta 3.mailako ikasleekin erabiltzeko). Jolasak hartu dira gai nagusi gisa, eta Sekuentzia Didaktiko berri bat sortu da, gelan landu eta gero jolaslekuan aplikatzekoa.

2018-2019 ikasturtean, bestalde, urratsak eman dira Lehen Hezkuntzan metodologiaren aplikazio pilotuak egiteko, hiru ikastetxetan. Horrez gain, DBHko ikasleekin aplikatzeko moduko metodologiaren prototipoa sortzeko prozesua abiatu da.

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

25

Hizkuntza-ohiturak Osakidetzan

Zuzendaria | Pello Jauregi
SL Klusterreko langilea | Pablo Suberbiola
Partaideak | Xabier Arauzo, Eguzkiñe Gezuraga, Alazne Iturriotz, Amaia Ugartemendia, Ander Manterola, Ander Zuloaga, Garbiñe Garai, Garbiñe Loiarte, Irene Gil eta Leire Sagastizabal (Osakidetza).

Osakidetzan lankideen arteko hizkuntza-ohituretan eragiteko proiektua da hau. Osakidetzak, bere Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren garapenaren baitan, garrantzia berezia aitortzen die lankideen arteko hizkuntza-ohiturak (euskararen aldera) aldatzeko tresnak eta metodologiak lantzeari. Hala, 2018. urtean zehar Aldahitz proiektuan garaturiko Eusle metodologiaren esperientziak modu pilotuan Osakidetzan aplikatzeko dinamika abiatu da: proiektuaren Garapen Taldea antolatu da, formazioa eman da eta esperientziak garatzeko guneen lokalizazioak egin dira.

Eusle metodologiaren esperientziak garatu dira lau osasun-etxetan: Bermeon, Hondarribian, Eskoriatzan eta Zumarragan. Horrez gain, Ulerrizketa metodologiaren gaineko formazioa eman da, eta bi metodologien aplikazioa erakundean zabaltzen joateko aukerak aztertu dira.

Babeslea:
- Osakidetza

Osakidetza

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

4 Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak

4

Ez gabiltza bakarrik bide honetan

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Urtean zehar hamaika ekitalditan parte hartu du Soziolinguistika Klusterrak, bere proiektuekin lotutako edukien bidez edo kideen ekarpenarekin:

Ahozkotasunarekin lotutako hainbat aurkezpen egin dira:

- "Ahozko komunikazioa irakastea. *Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*" gidaliburuaren aurkezpena, XXII. Eskola Hiztun Bila jardunaldian (Gasteiz).
- Seaskarekin antolatutako hitzaldia, Kanbon.
- Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza Teknikarientzako hitzaldia, Gasteizko Berritzegunean.

Arrue proiektuaren gaineko hitzaldiak honako hauek izan dira:

- Arrue ikerketaren 2011-2015 emaitzen bi aurkezpen:
  - Hezkuntzako Ikuskaritzaren Prestakuntza Planeko jardunaldietan (Iurretako Lanbide Heziketa institutuan),
  - eta Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean.
- Behe Nafarroako Euskararen Urtaroa tarteko, "Arrue ikerketaren irakaspenak. *Eskolaren garrantzia eta mugak ikasleen euskararen erabileran*" hitzaldia, Larzabalen. Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa.

Erabileraren kale-neurketari loturiko aurkezpenak:

- "Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa" hitzaldia, EHUko Hezkuntza fakultatean, Leioan.
- "Nafarroan euskararen kale-erabileraren neurketa" aurkezpena, Nafarroako Parlamentuan.
- "Nafarroako egoera soziolinguistikoa, zonifikazioaren ikuspegitik" hitzaldia, UEU eta Kontseiluak antolatutako "Hizkuntza eskubideak bermatzeko Legearen bidean" Jardunaldian.

Nazioarteko hiru kongresutan partaide izan da Soziolinguistika Klusterra, bere proiektuen gaineko aurkezpenekin:

- 1st Conference on Frisian Humanities - Multilingualism, Ljouwert (Frisia, Herbehereak).
  - Measuring the use of languages in the streets of the Basque Country
  - Language activation in society for the promotion of Basque language at a local level
  - The Aldahitz project and the "Eusle" methodology: changing language use from Spanish to Basque in the work environment
  - Jendaurrean erabili": action-research focused on the public communication through a minority language.
- XIII Congreso Internacional Lingüística Xeral, Vigo (Galizia).
  - "Jendaurrean erabili": investigación-acción centrada en la comunicación pública a través de una lengua minorizada.
  - The Aldahitz project and the "Eusle" methodology: changing linguistic habits from Spanish to Basque.
  - Medición del uso de las lenguas en la calle.
  - Activación social para la promoción del euskera a nivel local



- IV Jornades "La recerca sociolingüística en l'àmbit de la llengua catalana", Xarxa CRUSCAT, Bartzelona (Katalunia).

Jendaurrean Erabili proiektuari lotutako aurkezpenak:

- Proiektuaren aurkezpena Lanbide Heziketako Hizkuntza Normalkuntza arduradunen HIZKELAN3 Jardunaldian, Iurretako LHIIn.
- "Experiencias de revitalización en el País Vasco" komunikazioa Desplazamiento lingúístico y revitalización: reflexiones y metodologías emergentes mintegian, Amerikanisten 56. Nazioarteko Kongresuan (Salamanka).

Beste hainbat hitzaldi eta aurkezpen:

- EHUko campus bakoitzean, Eusle metodologiari buruzko saio bana, Aktibatu programan.
- Udaltop *Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketetan* (Lasarte-Oria, Gipuzkoa), bi hitzaldi:
  - "Bi gehi bi lau ez direnean: herrigintzaren magia. Hamaika gako herritarren aktibazioan"
  - "Ulermena aktibatzeko metodologia berriak prestatzen"
- EHUko uda ikastaroetan hitzaldiak:
  - "Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?" ikastaroan (Donostia), "Zenbateraino hika Azpeitian?" eta "Hitanoa eskolan lantzeko egitasmoa: Azpeitia eta Zumaia" hitzaldiak.
  - "Osasuna eta Hizkuntza: Erronkak eta Aukerak" ikastaroan (Bilbo), "Euskararen erabileraren aktibazioa lan munduan" hitzaldia.
- Arantzazutik mundu zabalera (1968-2018) Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarrean, hitzaldia: "Euskara batuaren ezaugarri soziolinguistikoak etorkizunari begira".
- "Nolako lidergoa da enea?" saioa Izuran (Behe Nafarroa), Udalbiltzarekin lankidetzan.
- Kontseiluak eta Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Legearen Bidean jardunaldian "Nafarroako egoera soziolinguistikoaren diagnosia" hitzaldia.

Hizkuntza-ekologiaren inguruko ekimenetan parte hartzea:

- Garabideren Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoan, "Hizkuntza Aniztasuna eta Hizkuntza-Ekologia" lan-saioa.
- Euskonews buletinaren 730 zenbakian, "Hizkuntza-ekologiaz bi hitz" artikulu laburra (Eusko Ikaskuntza)
- Euskal Kultur Erakundeak antolatutako "Euskararen munduak: Indar-guneak eta erronkak" mintegian, "Hizkuntza guttituak munduan: egoerak eta perspektibak Hizkuntza-ekologiaren ikuspegitik" hitzaldia (Baiona).
- Euskaraz bizi! lantaldeak antolatuta, "Nola lortu hizkuntz aniztasun jasangarria? Zer da hizkuntz ekologia eta zein dira hizkuntza baten bizi baldintza jasangarriak?" hitzaldia (Baiona).

Beste erakunde batzuek antolatu dituzten proiektuetan partaide izan da Soziolinguistika Klusterra:

- Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldietan parte hartuz, besteak beste, XVII. Biltzarrean. Eta "Euskara Batuaren Adierazpena" sinatuz beste 35 eragilerekin batera.
- Eusko Ikaskuntzaren e5 (Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen) mintegietan.
- Topaguneak antolatutako "Topaldia" jardunaldian:

- “Diskurtso ezberdinak euskalgintzan” hitzaldia eskaini da,
- eta saioen edukiak BAT Soziolinguistika Aldizkarian argitaratu dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Gipuzkoako Euskararen Foroan eta euskalgintzaren berrikuntzarako palanken ekimenean.
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutako gazteen euskara erabilerari buruzko mintegian.

Soziolinguistika Klusterra antolatzaile, laguntzaile, aholkulari edo partaide da beste hainbat erakunde eta ekimenetan:

- NPLD (Network to Promote Language Diversity) sareko partaide, Europako hizkuntza gutxituetako gobernu eta elkarteetako erakundeekin batera. Valentziako Batzar Orokorrean eta Ljouwert-eko (Frisia) udazkeneko mintegian izan da Soziolinguistika Klusterra.
- Garabideren Kontseilu Nagusiko kide.
- Munduko Hizkuntzen Ondare Unibertsalaren UNESCO Katedran.
- Asmoz Fundazioaren HIZNET Hizkuntza Plangintzako graduondokoan.
- Euskaraldia ekimenaren erakunde sustatzaile.
- Gasteizko Udalak antolatu duen HIGA! Hizkuntza Gutxituetako Hiztun Gazteen 2. Topaketan Batzorde Zientifikoko kide.
- Bilbon Eusko Ikaskuntzak gazteak eta euskarari buruz egindako ikerketaren kontrastean.
- Soziolinguistika hiztegi txikiaren gaineko lantaldean, Gasteizen.
- Zubideiak2, “Bizi euskara zure erara. Zuk nola bizi duzu?”, Topaguneak bultzatutako ekimenaren sustatzailea.
- Eremu sozioekonomikoaren euskararen plan estrategikoa 2019-2023 aldirako definitzeko saioan partaide, Miñao.
- Euskararen Aholku Batzordeko aktibazioko lantaldean parte hartzaile Euskaraldiko ikerketarekin.
- Osakidetzaren euskara planaren gaineko jarraipen saioan, Bilbon.

Harreman mailan, erakunde eta norbanako batzuekin izandakoak aipatzeak merezi du:

- Bilboko Udala laguntzaile izan da Soziolinguistika Jardunaldiaren antolakuntzan eta Soziolinguistika Klusterreko bazkide egin da.
- Elin Haf G. Jones irakasle galestarrarekin harremana eta elkarlan aukerak.
- Etxepare Institutuarekin elkarlanerako hitzarmena.
- Bertsozale Elkartearekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilera.
- Baionako IKER Euskara eta euskal testuen ikerketa-zentroarekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilera.
- Bartzelonako Unibertsitateko CUSC-UB soziolinguistika ikerguneko zuzendari Xavier Vilarekin bilera.
- Udalbiltzarekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilera.
- Fryske Akademy ordezkaritzarekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilerak Leeuwardenen eta Euskal Herrian.
- Colin H. Williams Galeseko soziolinguistika adituarekin, UDALTOPen baitan, bilera.
- Ipar Frisiako frisieraren aldeko eragileen ordekaritzarekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilera.
- Estatistika ikastaroa Natxo Sorolla Rovira i Virgili Unibertsitateko eta CUSC-UBko ikerlariarekin.
- Jackie Urla antropologo eta ikerlariarekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilera.
- Fernando Ramallo Galiziako ikerlariarekin elkarlanerako aukerak aztertzeko bilera.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2018